

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Zerga Ogasunak 20 milioi euro itzuliko dizkie ostegun honetan 574 enpresari BEZa aurreratzeko neurria aplikatuta

Hala, amaitu egingo da maiatzean egindako itzultzeen erregularizazio-prozesua, eta 6 hilabetetik 30-60 egunera murriztuko da hileroko BEZa itzultzeko epea Nafarroako enpresa txiki eta ertainen kasuan

Miércoles, 28 de mayo de 2014

Nafarroako Gobernuak, gaur goizeko saioan, hileroko BEZa itzultzeko erregularizazio-prozeduraren berri izan du. Nafarroako Zerga Ogasunak berak gauzatu du prozedura 2013ko azarotik 2014ko otsailera arteko aldiari dagokiona. Era berean, Nafarroako enpresa txiki eta ertainek hileroko ordaindutako BEZa itzultzeko epea aurreratuko dela ere jakin du, legezko 6 hilabete izatetik gehienez 2 hilabete izatera, martxotik aurrerako eskaeretan.

Enpresa txiki eta ertainak likideziaz hornitzeko helburua duen neurria da, eta [2013-2015 Ekintza Planean](#) dago jasota.


20 milioi euro itzuliko dira

Hortaz, ostegun honetan 20 milioi euro itzuliko zaizkie, 2013ko azaroa -- 2014ko otsaila denboraldiari dagokionez, denboraldi horretan 200.000 euro baino gutxiago jaso behar duten enpresa guztiei.

Onuradunak izango diren 574 enpresetatik 522k banku-transferentzia bidez jasoko dute dirua, denera 18.825.795 € 81 enpresari guztira 1.042.986 € ordainduko zaie ordaintzeke dauden zorrak direla-eta (horietatik 52ri itzuli beharreko kopuruaren % 100 ordainduko zaie).

Indarrean den legeria betez, 75 enpresari dirua itzuli behar zaie oraindik, baina ez dituzte eguneko zerga-betebeharrak.

Zenbatekoa itzultzeko epea 2 hilebetera aurreratu da



Ogasunaren eraikina

dagoeneko

Gobernuak jakinarazi du aplikatzen ari direla dagoeneko hileroko BEZa itzultzeko epea aurreratzeko neurria, beraz, martxotik aurrerako zerga-aldiengatik egindako hileroko itzultze-eskaerak 30 eta 60 egun arteko epean gauzatuko dira, itzuli beharreko zenbatekoa 70.000 euro baino gutxiagokoa denean. Nafarroako Zerga Ogasunak egindako kalkuluen arabera, enpresen % 85ek diru hori jasotzeko eskubidea izango du.

BEZa itzultzeko epea aurreratzeko neurriak Nafarroako ekonomian 25 milioi euro sartzea ekarriko luke 2014ko aurrekontu-ekitaldian.